

# BIMELIVE

URR 29 → 30 OCT · 2021 · BILBAO ARENA · BILBAO

\_\_\_\_\_ jaun/andreak, \_\_\_\_\_ NAN zenbakia eta  
\_\_\_\_\_ helbidea dituenak, adierazten du  
\_\_\_\_\_ (r)en  ama/aita /  tutore/ordezkarria dela, eta BAIMENA  
EMATEN DU honako hauetarako:

1. Adingabea **BIME LIVE** -era joateko, bakarrik (16 urtetik 18ra bitartekoen kasuan) edo berak lagunduta (16 urtetik beherakoen kasuan). Adierazten du jaialdira joateko baldintzak ezagutzen eta onartzen dituela (jaialdiaren web orrian agertzen direnak: (<https://www.bime.net/live/eu/condiciones-generales/> ) eta bere gain hartzen du adingabearen ardura jaialdiak irauten duen bitartean.

2. 2021eko urriak 29 eta 30-an Bilbon egingo den jaialdian bere kargura dagoen adingabearen argazkiak edo bideoak egiteko, bai eta adingabearen izena eta abizenak argitaratzeko ere. Adingabearen izen-abizenak komunikabideetan erabil daitezke eta bere irudia edozein motatako publizitate, sustapen eta argitalpenetan ager daiteke (baita webgune korporatiboen edo sare sozialen bidez *online* egiten direnetan ere), sustapen nahiz informazio xedeekin; bi kasuetan, ezin izango da inolako ordain ekonomikorik eskatu, *maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoaren* arabera.

3. BIZKAIA INTERNATIONAL MUSIC EXPERIENCE, AIE-k adingabearen irudi eskubideak merkataritza xedeekin ustiatzeko, publizitate eta sustapen kanpainetan (baita webgune korporatiboen edo sare sozialen bidez *online* egiten direnetan ere); izan ere, baimen honi jarraiki, lortutako irudien titularra da. Horretarako, dokumentu hau berriaz sinatuta eta adingabearen izenean, haren irudien gaineko eskubide guztiak lagatzen ditu iraupen mugagabearekin eta edozein lurraldetarako.

*Pertsona fisikoak datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez babesteko 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/676 Erregelamenduan (EB) (95/46/EB Zuzentaraua indargabetzen du) aurreikusitakoaren xedetarako, jakinarazten dizugu jaialdi honetara etortzean, eta horren ondorioz, zure datu pertsonalak eta etortzeko baimena duen adingabearenak tratatuak izan daitezkeela, irudiaren eta ahotsaren gaineko datuak barne. Tratamendua publizitate, sustapen, informazio eta/edo merkataritza xedeekin egingo da, eta ardura BIZKAIA INTERNATIONAL MUSIC EXPERIENCE, AIE-rena izango da (Bilbao (Bizkaia), Ventosa Bidea, 46, 1ºD, 48013). Datuetara sartu, zuzendu, ezabatu, tratamendua mugatu, ezeztatu edo aurka egiteko eskubideak baliatu ahalko dituzu, bai eta datuak eramateko eskubidea ere, harremanetarako helbide honetan: dpo@lasttour.net. Era berean, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean erreklamazioa egiteko eskubidea izango duzu.*

Stua.: \_\_\_\_\_